ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA, IRUNGO LEKAENEAKO ADINEKO AUTONOMOENTZAKO APARTAMENTUETAN CATERING-ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI ARRUNTAREN BIDEZ ESLEITZEKO DENA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA, ARAU EZARGARRIAK ETA ESLEIPEN MODUA

1.1. Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea Irungo Lekaenea eraikineko catering zerbitzua ematea izango da, baldintza teknikoen agirian aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu hau "Janarien hornidura-zerbitzuak" CPV 55320000-9 kodearen arabera kodetu da, Europar Batzordeko CPV Nomenklaturari dagokiona, 2007ko azaroaren 28ko Europar Batzordeko 213/2008 Erregelamenduan (EE) jasotzen dena; azken horrek Europako Parlamentuko eta Europako Kontseiluko 2195/2002 Erregelamendua (EE) aldatzen du –zeinaren bidez onartzen baita kontratu publikoen hiztegi komuna (CPV)–, baita kontratu publikoen prozeduren gaineko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2004/17/CE eta 2004/18/CE zuzentarauak, CPV berrikusteari dagokionez.

Kontratu honen helburua ez da sorta-banaketa; izan ere, zerbitzua hainbat erakunde esleipendun ezberdini esleituz gero, kontratua betearaztea zailagoa izango litzateke, ikuspuntu teknikotik.

1.2. Zerbitzua emango da Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotako baldintzak betez. Xede guztietarako, Administrazio Klausula Partikularren Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiria, haien Eranskinak eta esleipendunak aurkeztutako eskaintza, kontratu-dokumentuak izango dira, eta horrenbestez aldeen betebeharrak arautuko dituzte eta enpresa esleipendunak sinatu beharko ditu, bere adostasuna frogatzeko, kontratua formalizatzeko ekitaldian. Gai guztiz teknikoak ez badira behintzat, agiri honen xedapen guztiek lehentasuna izango dute espedienteari erantsita doazen gainerako baldintza fakultatiboen gainean.

1.3. Kontratazioa honako hauen arabera arautuko da: Agiri honetan ezartzen dena; Baldintza Teknikoetan ezartzen dena; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezartzen dena, zeinaren arabera Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora, 2014ko otsailaren 26kora (SPKL) lekualdatzen baitira; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan ezartzen dena, zeinaren arabera Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen baita (APKLEO); baita Estatuko obrak kontratatzeko Administrazio Klausula Orokorren Agirian ezartzen dena ere, abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuak (PCAG) onartu duena; eta Estatu mailan zein Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan kontratazioa arautzen duten eta kontratazioaren eremuan ezargarriak diren beste edozein xedapenetan ezartzen dena ere. Horien ordez, administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak ezarriko dira, eta halakorik izan ezean, ezarri beharreko zuzenbide zibileko eta merkataritza-zuzenbideko arauak.

1.4. Definitutako kontratuak zerbitzuen kontratuaren izendapena du, SPKLaren 17. artikuluak definitzen duenaren arabera, eta izaera pribatua du, SPKLaren 26.1.b)

artikuluaren arabera. Xede horietarako, 26.3 artikuluaren edukia kontuan izanik, lizitazio honen bidez araututako kontratua SPKLaren arabera arautuko da kontratuaren prestakuntzari eta esleipenari dagokionez; eta zuzenbide pribatuko arauen arabera bere eraginei eta iraungipenari dagokionez. Hala ere, SPKLaren honako artikulu hauetan xedatutakoa ere ezarri ahalko da: 201 artikuluan ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko obligazioen gainean ezarritakoa; 202. artikuluan betearazpen-baldintza berezien gainean ezarritakoa; 203. artikulutik 205. artikulura arte kontratua aldatzeko suposizioen gainean ezarritakoa; 214tik 217ra arte lagapenaren eta azpikontratazioaren gainean ezarritakoa; 218tik 228ra arte kontratazioaren arrazionalizazio teknikoaren gainean ezarritakoa.

1.5. Kontratua SPKLaren 156. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitako prozedura ireki arruntaren arabera, eta APKLEOaren dagozkion artikuluen edo hori ordezten duen erregelamenduzko xedapenaren arabera esleituko da. Esleipen modua esleipen-irizpide aniztasun baten arabera egingo da, kalitate-prezio baldintzarik onena oinarri hartuz. Esleipen-irizpideak eta horien puntuazioa Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen 19. Klausulan adierazten dira.

2.- KONTRATATZEKO PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio-espedientearen zati den justifikazio-memorian jasota daude Irunvik agiri honetan aipatzen den kontratua egiteko izan dituen arrazoiak.

3.- KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEA. KONTRATUAREN LUZAPENAK

3.1. Zerbitzua emateko kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa izango da, eta beste 2 urtez luzatu ahal izango da. Kontratuak ezin izango du 4 urte baino gehiago iraun.

3.2 Luzapena Irunviren borondatez erabakiko da, eta kontratistak nahitaez eman beharko du horren berri, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez jakinarazten bada.

Inola ere ezin izango da luzatu alderdien isilbidezko adostasunaren bidez.

3.3 Kontratuaren iraupen-epea alderdiek kontratua sinatzen duten egunetik aurrera zenbatuko da.

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO MOTA. AURREKONTU MAXIMOA. KREDITUAREN EXISTENTZIA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Prezioa finkoa eta aldakorra da:

Prestazio finkoa:

Garraioa, uniformeak, azterketa medikoak, NBE eta merkataritza-marjina bezalako kontzeptuak barne hartzen dituzte, eta ez dute barne hartzen tresneriaren kostua, eman beharreko zerbitzuaren arabera definituko baita.

- Urteko zenbateko finkoa : 11.500 € BEZik gabe

Zati aldakorra:

Kalkulatzen da gehienez 10 menu eguneko, batez beste 246 lanegunetarako.

- Altxatutako partidak: 5,4 € eguneko menu bakoitzeko.

- Urte bakoitzaren zenbatekoa: 13.284,00 €, BEZik gabe.

4.1. Aintzatetsitako balioa: 99.136,00 €, BEZik gabe.

Kontratuaren balio zenbatetsia zati finkoaren eta zati aldakorraren baturaren bidez lortu da, kontratuaren gehieneko iraupenaz biderkatuta, luzapenak barne.

4.2. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 49.568,00 euro-ko, gehi € de BEZa (10%), hau da, guztira 54.524,80 €.

Kopuru hori kalkulatutako gehieneko aurrekontua da, eta zenbateko handiagoko edozein eskaintza kanpoan uztea ekarriko du.

Kontratuaren benetako zenbatekoa kontratuaren indarraldian egindako zerbitzuen guztizko kopuruaren araberakoa izango da, eta esleipendunak eskaintzan ezarritako menu bakoitzeko prezio unitarioaren araberakoa. Kopuru horri esleipendunak honenbesteko partidengatik eskainitako prezio finkoa gehitu beharko litzaioke.

4.3. Kontratuaren prezioa esleipenaren kopuru berekoa izango da, eta inola ere ez da izango lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino handiagoa. Lizitatzaileek beren eskaintzak beheranzko joerarekin egin beharko dituzte, eta inola ere ezingo dute lehenago aipatutako aurrekontua gainditu; izan ere, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Xede guztietarako, ulertuko da kontratuaren prezioak jasoko dituela enpresa kontratistak egin beharko dituen gastu zuzen eta zeharkako guztiak kontratatutako prestazioa normal egikaritu dadin.

4.4 Kontratuaren prezioa ordaintzeko, uneko urteko aurrekontuaren kargura finantzatzea aurreikusita dago, 1 0710.433.01.150.10.2024 aurrekontu-aplikazioan, sozietatearen kudeaketa orokorreko enkarguari dagokionez. Era berean, IRUNVIk kreditu egokiak erreserbatuko ditu eragina jasango duten hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

5.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez da preziorik berrikusiko.

6.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren arduradunari, SPKLaren arabera, kontratua gainbegiratzea eta dagozkion erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea dagokio, hitzartutako prestazioa zuzen egiten dela ziurtatzeko, kontratazio-organoak esleitzen dizkion ahalmenen eremuaren barruan.

Gainera, kontratuaren arduradunak honako funtzio hauek ditu:

a) Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratuan edota xedapen orokorretan ezarritako gainerako baldintza teknikoak interpretatzea.

b) Kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko beharrezko bitartekoak eta antolaketa eskatzea.

c) Bidezko diren aginduak ematea kontratuaren helburuak lortzeko.

d) Zerbitzuen garapen egokirako sartu behar diren aldaketak proposatzea.

e) Zerbitzuak garatzen diren bitartean sortzen diren gorabehera guztiak izapidetzea.

f) Egokiak deritzen bilera guztiak antolatzea, zerbitzuak ondo garatu daitezen, eta zerbitzu horiek gainbegiratzea. Gainbegiratze horietan enpresa esleipendunaren ordezkariak izan beharko dira, zerbitzua egikaritzen esku hartzen duten enpresa horretako langileen, teknikarien edo adituen laguntzarekin batera.

7.- KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA EGIKARITZEA

SPKLaren 62. artikuluaren arabera, kontratuaren jarraipena eta egikaritze arrunta egiteko unitate arduraduna IRUNVIko zuzendaritza-gerentzia izango da.

8.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

SPKLaren 63. artikuluaren arabera, gardentasuna ziurtatu ahal izateko eta beharrezko dokumentazioaren bidez kontratu-jarduera publikoaren eskura jarri ahal izateko, IRUNVIko kontratatzailearen profila publikoki eskuratzeko honako helbide hau ezarri da: http://www.irun.org/irunvi/caste/concurso_perfil.asp

9.- JAKINARAZPENAK.

Jakinarazpenak eta komunikazioak baliabide elektronikoen bidez egingo dira, bai kontratatzailearen profilean argitaratuz, bai lizitatzaileak emandako posta elektronikora jakinarazpen elektroniko bat bidaliz.

10. - KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio-organoa IRUNVIko Administrazio Kontseilua da, horretarako izendatutako Kontratazio Mahaiaren laguntzarekin, eta dagokion laguntza teknikoa izango dute.

11.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaiko kide izango dira Administrazio Kontseiluko lehendakaria edo hark eskuordetzen duen sailburua, zuzendari gerentea edo hark eskuordetzen duen pertsona, Administrazio Saileko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona eta sozietateko aholkulari juridikoa edo hark eskuordetzen duen pertsona, mahaiko idazkari-lanak egingo dituena. Nahi duten sailburuek ere parte hartuko dute kontratazio-mahaian.

Esleitze-proposamena egin aurretik, egoki deritzon eta kontratuaren xedearekin lotura duten txosten tekniko guztiak eska ditzake kontratazio-mahaiak.

12.- AGIRI, DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio Klausula Partikularren Agiriak, Baldintza Teknikoak eta gainerako dokumentazio osagarria Kontratatzailearen Profilean izango dira erabilgarri, proposizioak aurkeztu arteko epea amaitzen den arte.

Proposizioak aurkeztu aurretik, enpresa interesdunak IRUNVIko administrazio-langileekin eta teknikariekin jarri ahalko dira harremanetan, lizitazio honetan jasotzen diren berariazko baldintzen gainean hitz egiteko.

Enpresa baten denbora baliodunean agirien eta gainerako dokumentazio osagarriaren gaineko informazioa eskatuz gero, SPKLaren 138. artikuluan eta APKLEOaren 78. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Agirien eta dokumentazio osagarriaren gainean eskatzen den informazioa eskaintzak aurkezteko finkatutako epemuga baino gutxienez sei egun lehenago eman beharko da, beti ere eskaera gutxienez hamabi egun lehenago aurkeztu bada.

Administrazio Klausula Partikularren Agirietan, Baldintza Teknikoetan edo gainerako dokumentazioan ezarritakoa argitzea eskatuz gero, erantzunek izaera loteslea izango dute eta Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira.

Kontratu-espedientearen gaineko informazio guztia, zein IRUNVIko kontratu-jardueraren gaineko beste edozer datu edo informazio Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, SPKLaren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.

13.- ENPRESA LIZITATZAILEAK

13.1. Kontratuaren xede den lizitazioan eskaintzak aurkezteko aukera izango dute, aurrerago zehaztutako moduan, Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridiko guztiek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, SPKLaren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuren baten eraginpean ez badaude, eta beren fidagarritasun ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute. Kontratu zehatz bat egiteko behar den fidagarritasuna egiaztatzeko, enpresa beste erakunde batzuen fidagarritasunean eta baliabideetan oinarritu ahalko da, beste erakunde horiekin dituen loturen izaera juridikoa alde batera utzita, beti ere egiaztatzen badu kontratuaren betearazpen osoan fidagarritasun eta baliabide horiek izango dituela, eta beste erakunde horrek ez duela kontratatzeko inolako galarazpenik, SPKLaren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du eskaera bat baino gehiago ezta proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) batean parte hartzeko edo beste batzuekin batera horrelako elkarte bat proposatzeko eskaerarik sinatu, baldin eta banaka egin badu edo ABEE bat baino gehiagotan ageri bada.

Arau horiek urratuz gero, lizitatzaileak sinatutako eta parte hartutako eskaera edo proposamen guztiak onartu gabe geratuko dira.

13.2. Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendunak izango dira kontratuaren prestazioak, fundazio-estatutuen edo fundazio-arauen arabera, helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barnean bilduta badaude.

13.3. Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu zuten Estatuetako enpresak kontratuaren esleipendunak izango dira,

ezarrita dauden Estatuaren legeriaren arabera kontratu horren prestazioak egiteko gaituta daudenean. 11.5 Enpresa horiek ezarrita dauden Estatuko legeriak baimen berezia edo erakunde zehatz batean parte hartzea exijitzen duenean dagokion zerbitzua eman ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute enpresa horiek.

13.4. Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten Estatuetakoak ez diren pertsona naturalek edo juridikoek txosten bidez egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaburuaren jatorri-estatuak, aldi berean, onartzen duela Espainiako enpresek parte-hartzea Espainiako sektore publikoko erakundeen pareko sektore publikoko erakundeak kontratatzeko. Txosten hori dagokion atzerriko Espainiako Ekonomia eta Merkataritza bulegoak egingo du.

13.5. Aldi Baterako Enpresaburu Elkarteak. Helburu horrekin, aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek kontratuak egin ahal izango dituzte sektore publikoarekin, eta ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea kontratuaren esleipena haien alde egiten den arte. Enpresaburu horiek IRUNVIrekiko elkartasun-obligazioa izango dute, eta ABEEko ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, behar besteko ahalmenekin, kontratuaren ondoriozko eskubideak gauzatzeko eta betetzeko, kontratua iraungitzen den arte.

Lizitazio-prozedura bideratu bitartean eta kontratua formalizatu aurretik ABEEren osaera aldatuko balitz, ABEE prozeduratik kanpo geratuko litzateke. Era berean, ABEE esleipen-prozeduraren izapidetik kanpo geratuko da, prozedura hori osatzen duten enpresen artekoren batek edo batzuek kontratatzeko galarazpena izango balute.

ABEE osatzen duten enpresen arteko bati edo batzuei dagokien jarduera-adarra fusionatzeko, bereizteko eta emateko edo transmititzeko eragiketek ez dute galaraziko ABEEk esleipen-prozeduran jarraitzea. Sozietate xurgatzailea, fusioaren ondoriozkoa, bereizketaren onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ABEE osatzen duten enpresen arteko bat izan ezean, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, ez dute kontratatzeko galarazpenik izan beharko eta exijitzen den fidagarritasuna eta gaitasuna izan beharko dute.

Beren funtzioak gauzatzean kontratazio-mahaiak, edo halakorik izan ezean, kontratazio-organoak kolusio-aztarnarik hautemango balu ABEE batean multzokatutako lehiatzen diren enpresen artean, enpresa horiei eskatuko zaie 10 egun baliodunetan berariaz eta arrazoituz justifika ditzaten multzokatutako lehiatzeko arrazoiak. Kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak, enpresek egindako justifikazioa kontuan hartuz, balioetsiko balu haien arteko kolusio-aztarna sendoak daudela, zantzu horiek Lehiaren Euskal Agintaritzara eramango ditu, SPKLaren 150.1 artikuluaren hirugarren paragrafoak aipatzen duen prozedura sumarisimoa egiaztatu ondoren, zantzu horien gaineko adierazpena eman dezan.

ABEEarekin kontratua formalizatu ondoren, SPKLaren 69.9. artikuluak agindutako arauak beteko dira.

13.6. Prozedura bideratzen den bitartean eta esleipenaren aurretik lizitatzailearen pertsonalitate juridikoa iraungitzen bada enpresa-ondarearen fusioa, bereizketa edo transmisioa dela eta, prozedura horren ondorengoa sozietate xurgatzailea, fusioaren ondoriozkoa, bereizketaren onuraduna edo ondarearen eroslea izango da, beti ere gaitasun-baldintzak biltzen baditu eta kontratatzeko galarazpenean erori bada, eta agiri honetan lizitazioan parte hartu ahal izateko exijitzen den fidagarritasun ekonomikoa, teknikoa edo profesionala egiaztatzen badu. Kontratua atxikitzen zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak ez betetzeagatik subrogazioa ezin bada gauzatu, kontratua suntsiarazi egingo da, eta ondorio guztietarako esleipendunaren erruzko suntsiarazpen-kasu bat bezala hartuko da.

14.- GAITASUN ETA FIDAGARRITASUN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA ETA EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN GAINEKO EGOERAK

14.1. SPKLaren 74. artikulua betez, sektore publikoarekin kontratuak egin ahal izateko, enpresaburuek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte kontratazio-organoak ezarritako finantza- eta ekonomia-kaudimenari eta gaitasun ekonomiko edo teknikoari dagokionez.

14.2. Aurrekoa oinarritzat hartuta, lizitatzaileek fidagarritasuna egiaztatu ahalko dute, ondoren xehatzen diren fidagarritasun ekonomikoaren eta fidagarritasun teknikoaren baldintzak egiaztatuz gero:

Fidagarritasun ekonomiko-finantzarioa:

Honako bitarteko hauek (biak) erabiliz egiaztatu beharko da:

1.- Kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumena, enpresaburuaren eratze-dataren edo jardueren hasieraren eta eskaintzak aurkezteko dataren arabera eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako onenari dagokionez, 148.704,00 euroko edo gehiagoko zenbatekoan.

Enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen Erregistro Ofizialean gordailututako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez.

2.- Nahitaezko aseguruak eta aseguru espezifiko hauek edukitzea, kontratua formalizatu aurretik esleipendunak egiaztatu behar dituenak: erantzukizun zibileko aseguru bat, elikadura-

intoxikazioko arriskuak barne hartzen dituena, bai eta beste aseguru bat ere, aseguratuak edo haren langileek beren jardueran izan ditzaketen gorputzeko kalteak eta kalte materialak bermatzen dituena, eta horrek eragiten dituen kalte ekonomikoak, gutxienez 1.000.000 eurokoak.

Baldintza hori aseguratzaileak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak eta aseguruaren mugaeguna adierazita, eta asegurua harpidetzeko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bidez, hala dagokionean.

Gaitasun teknikoa edo profesionala:

Honela egiaztatu beharko da:

1. Kontratuaren xede diren zerbitzuen edo lanen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, gehienez ere azken hiru urteetan. Organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko da, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, subjektu pribatu horrek emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiri hori izan ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, hark dituen eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten dokumentuekin batera; hala badagokio, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organoari.

Gutxieneko baldintza izango da exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa 126.420,00 eurokoa edo gehiagokoa izatea kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzuen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzuetan, enpresariak gauzatutako zerbitzuak eta kontratuaren xedea osatzen dutenak bat etortzeko irizpidetzat hartuta sailkapen-azpitalde berekoak izatea, baldin eta kontratua erregelamenduz ezarritakoren batean sartuta badago. Kodeen lehen bi digituen arteko berdintasuna

14.3. Aldi baterako enpresen elkartearen kasuan, fidagarritasun ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala zehazteko, horietako bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira.

14.4. Kontratatzeko gaitasunaren, fidagarritasunaren eta galarazpen-gabeziaren inguruko egoerek indarrean egon beharko dute eskaintzak aurkezteko amaiera-datan, eta kontratua burutzeko unean ere hala izan beharko dute.

15.- PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK

Parte hartzeko eskaerak, eta hala badagokio, proposamen-eskaerak aurkezteko, honako hauek bete behar dira:

- Agiri honetako, Baldintza Teknikoen Agiriko eta gainerako kontratu-dokumentuetako klausulak baldintzarik gabe onartzea, beren osotasunean eta inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

- Aurkeztutako datu guztiak zehatz-mehatzak direla eta kontratuaren xede diren prestazioak kontratatzeko exijitzen diren baldintza guztietako bakoitza baduela adierazteko erantzukizunpeko adierazpena.

- Kontratazio Mahaiaren eta Organoaren baimena izatea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu-kide baten operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

IRUNVIk, eskaintzak aurkezten diren epean, kontratuaren egikaritze-tokiaren gaineko informazioa emango dio enpresa interesdun orori, baita dokumentazio eta araudi ezargarriaren gaineko informazioa ere. Ondorioz, alegatu arren ez zirela ezagutzen lurzoruak, obraren baldintzak, kontratuaren baldintzak, kontratuaren parte diren dokumentu erantsiak edo legeria edo arau ezargarriak, enpresa kontratatzaileak horiek bete beharko ditu nolanahi ere.

Prozedura horretan ezingo dute parte hartu, haiekin lotutako enpresen bidez zuzenean edo zeharka kontratua prestatzeko baldintza teknikoak edo dokumentuak egiten parte hartu duten edo kontratazio honen prozedura prestatzean kontratazio-organoari aholkularitza eman dioten enpresek, beti ere parte-hartze horrek gaitasuna faltsotu badezake edo pribilegiozko tratu bat eman badezake gainerako enpresa lizitatzaileen aldean.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra egin dezake. Era berean, ezingo du beste enpresa batzuekin batera aldi baterako enpresa-elkarte baten proposamenik sinatu, baldin eta dagoeneko banakako proposamena sinatu badu. Arau horiek urratuz gero, enpresa horrek aurkeztutako proposamen guztiak onartu gabe geratuko dira automatikoki.

16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

16.1. Lizitazio eta kontratazio elektronikoaren sistemari esker, parte hartzeko proposamenak eta eskaerak aurkez daitezke, dokumentuak bidali eta jaso daitezke eta kontratuak sinatu; sistema hori IRUNVIren erakundearen gunean eskuratu daiteke, honako helbide honetan: http://www.irun.org/irunvi/caste/concurso_perfil.asp

Parte hartzeko proposamenen eta eskaeren aurkezpena egiteko, lizitatzaileak edo horren ordezkariak lizitazio edo kontratazio elektronikoko sistema erabiliko du, **I. Eranskinean** jasotako jarraibideen arabera, eta aurkezpen horiek proposamenak

aurkezteko adierazitako epearen azkeneko egunera arte egin ahalko dira. Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

16.2. Dokumentazioa entregatu ondoren, ezingo da erretiratu. Ez dira onartuko agiri honetan artxibo elektroniko bakoitzarentzako adierazten den dokumentazioaren aldean beste dokumentazio bat duten artxibo elektronikoekin lotutako proposamenak.

16.3. Epea: Proposamenak hamabost (15) egun naturaleko epean aurkeztuko dira, lizitazioaren iragarpena kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

16.4. Lizitatzaileek adierazi behar dute eskaintzetan jasotako zer dokumentu (edo dokumentu horien zer zati) edo datu diren "konfidentzialak", eta eskaintzaren dokumentu edo datu guztien konfidentzialtasun-adierazpen orokorrak ez dira onargarriak izango. Konfidentzialtasun-baldintza argi eta garbi islatu beharko da (gaininprimatua, marjinan edo argi eta garbi identifikatzeko beste moduren batean) baldintza hori duen dokumentuan bertan; eta gainera, baldintza hori justifikatzeko arrazoiak adierazi beharko dira. Ez dira konfidentzialak izango lizitatzaileek berariaz hala adierazi ez dituzten dokumentuak.

16.5. Parte hartzeko baldintzak bete izanaren erantzukizunpeko adierazpenak zuzentzea eskatu dezakete lizitatzaileek, kontratazio-organoaren edo kontratazio-mahaiaren menpeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean, baldin eta ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena dagokion moduan bete ez bada. Era berean, esleipendun moduan proposatzen denak kontratua esleitu aurretik zuzendu dezake parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eskatzen zaion dokumentazio-falta edo dokumentazio osatugabea.

Kasu bietan, lizitatzaileari 3 egun balioduneko epea emango zaio, zuzentzeko eskakizuna jasotzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskatutako epean zuzentzen ez bada, kontratazio-mahaiak edo -organoak ulertuko du lizitatzaileak uko egin diola eskaintzari.

16.6. Proposamena **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN** aurkeztuko da. Artxibo bakoitzaren barnean, aparteko horri edo fitxategi batean artxiboaren edukia jasoko da, ondoren adierazten dena zenbakiz azalduta (HAKLAO, 80.1 artikulua):

1 ZENBAKIDUN ARTXIBO ELEKTRONIKOA – "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA"

1. Dokumentazio administratiboa:

a) Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB): SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Adierazpen hori **II. eranskinean** jasotako jarraibideen arabera bete beharko da

eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuko du, eranskin horretan adierazten den formulario ereduaren arabera betiere.
Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuetara jotzen badu haien kaudimena eta baliabideak erabiltzeko, haietako bakoitzaren EKABa aurkeztu beharko du.

b) Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio: Bi enpresa edo gehiago aldi baterako enpresa elkartea sortuta aurkezten badira lizitaziora, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute bertan adierazita sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak eta haietako bakoitzak duen partaidetza, bai eta formalki aldi baterako enpresa gisa eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere, esleipendun izanez gero (SPKLren 69. artikulua eta HAKLAOren 24. artikulua). Elkartea eratzen duten enpresetako bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko du aipaturiko dokumentu hori. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere EKABa aurkeztu beharko du. Baldintza agiri honen **III. eranskinean** dago alde baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

c) Enpresa lizitatzailearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena, enpresa zein taldetakoa den eta talde bereko sozietate guztiak biltzen dituena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Ezein enpresa-taldetakoa ez bada, horren arabera egingo da adierazpena. **IV. eranskin** gisa erantsi da

d) Lizitatzaileen izaera konfidentzialeko dokumentuen eta datuen adierazpena: Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala badagokio, zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer aurkeztutako datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat hartzeko modukoak. Horrez gain, baldintza hori horrela adierazitako dokumentuan bertan islatu beharko da (gaininprimatuta, marjinan edo beste edozer eratara). Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat har daitezke hirugarren pertsonei edo erakundeei zabaltzea beren merkataritza-interes legitimoen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia zintzoa kaltetu badezake. Adierazpen hori aurkezten ez bada, ulertuko da beste dokumentu edo datu ezeinek ez duela izaera hori. **V. Eranskin** moduan erantsiko dira.

e) Atzerriko lizitatzaileek dokumentazioan aurkeztu beharreko espezialitateak: Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letrak aipatzen duen erantzukizunpeko adierazpenaz gain, ondoren xehatzen den berariazko dokumentazioa aurkeztu behar dute:

Espainako empresa guztiek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako Epaitegi eta Auzitegiren eskumenaren mende jartzen dela aitortzen duen deklarazioa, eta, kasuan kasu, lizitatzaileari egokitu ahal zaion atzerriko eskumenari uko egitea (SPKLaren 140.1.f).

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten Estatuetako enpresek, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren helbidearen Etengabeko Misio Diplomatikoak edo Espainiako Bulego Kontsularrak emandako txostena, non enpresak egiaztatu ondoren jasoko den tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoan inskribatuta dagoela, edo halakorik izan ezean, tokiko trafikoan jarduten duela normalean, kontratuaren xede diren jardueren eremuan.

- SPKLaren 68. artikuluak aipatzen duen elkarrekikotasun-txostena, erregulazio harmonizatura atxikitako kontratuen kasuan izan ezik. Kasu horretan, elkarrekikotasun-txostenaren ordez, Etengabeko Misio Diplomatikoaren edo Ekonomia Ministerioko Kanpoko Merkataritzako Idazkari Nagusiaren txosten bat aurkeztuko da, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoaren gaineko akordioan Estatu sinatzaile moduan duen baldintzaren gainean. Enpresa esleipendunak, kasu horretan, sukurtsala ireki beharko du Espainian, bere eragiketak egiteko ahaldunak eta ordezkariak izendatuz, Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko direnak.

f) Langileen ezarri beharreko Hitzarmen Kolektiboaren Adierazpena: Lizitatzaileak adierazi beharko du zein den kontratuaren xedea gauzatuko duten langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa, eta hitzarmen hori sektore-eremukoa edo enpresa-eremukoa bada. Lizitatzaileak adierazitako eta aplikatu beharreko hitzarmena enpresakoa balitz, enpresako hitzarmenik existitzen ez bada ezarri beharreko sektore-hitzarmena adierazi beharko da. **VI Eranskin** moduan erantsiko dira.

Kontratazio-organoak edo -mahaiak hautagaiei edo lizitatzaileei eskatu ahalko die justifikazio-dokumentu guztiak edo horien zati bat aurkez dezaten, adierazpenaren indarraldiaren edo fidagarritasunaren gaineko arrazoizko zalantzak dituztenean, dokumentu horiek premiazkoak direnean prozedura ondo garatzeko, eta nolanahi ere, kontratua esleitu aurretik.

Hala ere, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean, edo Europar Batasuneko Estatu kide baten datu-base nazional batean agertzen denean, enpresaren espediente birtual moduan, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema moduan edo aurre-kalifikatzeko sistema moduan, eta dokumentu horiek aipatu organoek doan eskuratu baditzakete, enpresaburuak ez du aipatu tokietan inskribatutako datuen justifikazio-dokumenturik edo beste froga dokumentalik aurkezteko obligaziorik izango.

Aurreko ataletan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunaren, fidagarritasunaren eta galarazpenik ezaren inguruko egoerak hala izan behar dira eskaintzak aurkezteko amaiera-datan eta hala izaten jarraitu behar dute kontratua formalizatzen den unean.

2. ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA":

Artxibo horretan, baldintza-agiri honetako 19. klausulan deskribatzen diren balio-judizio bati lotutako esleipen-irizpideak deskribatzen dituen dokumentazioa sartuko dute lizitatzaileek.

2. artxibo elektronikoan ez da inola ere sartuko eskaintza ekonomikoari buruzko dokumentaziorik edo 3. artxibo elektronikoari dagozkion automatikoki ebaluatu daitezkeen balorazio-irizpideei buruzko dokumentaziorik, ezta horiei buruzko erreferentziarik ere. Hori dela eta, prozeduratik kanpo geratuko da.

3. ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK":

Artxibo honetan proposamen ekonomikoa deskribatuko duen dokumentazioa eta Agiri honen 19. klausulan adierazitako formulak eta puntuazio automatikoak aplikatuta ebalua daitezkeen egiaztagiriak sartuko dute lizitatzaileek.

17.- ESKAINTZAK OHIZ EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK DITUELA EZARTZEKO IRIZPIDEAK

Eskaintzen ohiz edo neurriz kanpoko izaera urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu Legegilearen 85. artikuluaren ezarpenaren arabera interpretatuko da.

Justifikazioak jaso ondoren, Mahaiak txosten teknikoa eskatuko du, lizitatzaileak bere eskaintza mantendu ahal izateko argudiatu dituen arrazoiak xehetasunez aztertu daitezen.

Neurriz kanpokotzat jo den eskaintza egin duten kontratisten justifikazioak eta horiek aztertzen dituen txosten teknikoa ikusirik, Kontratazio Mahaiak kontratazio-organoari proposatuko dio eskaintzaren onarpena edo bazterketa arrazoitu dezala. Eskaintzen balioespenean ez dira jasoko ohizkoak ez diren edo neurriz kanpokotzat hartzen diren proposamenak, baldin eta SPKLaren 149. artikuluan ezarritako prozedura betetzen ez badute.

SPKLaren 107.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunaren eskaintza hasieran anormaltasun-presuntzioan eroriko balitz, jarri beharreko bermea, guztira, eskainitako amaierako prezioaren % 10 izan beharko litzateke.

18.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

18.1. KONTRATAZIO MAHAIA. Jasotako proposamenak aztertzeko, Kontratazio Mahaia eratuko da, Agiri honen 11. Klausulan ezartzen denaren arabera osatuko dena.

18.2. PROPOSAMENEN AZTERKETA. Kontratazio Mahaiak, kontratatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan, eta gutxienez 48 ordu lehenago, 1. zenbakiko artxibo elektronikoa irekiko du eta kontratu hau eskuratu ahal izateko bete beharreko baldintzen inguruan jasotako dokumentazioa egiaztatuko du.

Mahaiak ikusiko balu aurkeztutako administrazio-dokumentazioan akats formalak edo materialak daudela, interesdunei jakinaraziko die posta elektroniko baten bidez eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango du lizitatzaileak akatsa zuzendu dezan.

Kontratazio Mahaiak, behin lizitatzaileek aurkeztutako Dokumentazio Administratiboak egiaztatu eta, hala badagokio, aurkitutako akats eta omisioak zuzendu ondoren, lizitaziora onartutako enpresak hautatuko ditu, kanpoan geratu direnak zein diren eta horretarako arrazoiak argi eta garbi adieraziz.

IRUNVIren kontratatzaile-profilean adierazitako tokian, datan eta orduan, Kontratazio Mahaiak jendaurrean irekiko ditu 2. zenbakiko Artxibo Elektronikoak, non onartutako enpresa lizitatzaileek 2. zenbakiko Artxibo Elektronikoan bildutako proposamen ekonomikoak eta formulen bitartez ebaluatzeko moduko gainerako irizpideei dagokien dokumentazioa bilduko diren.

Mahaiak uste badu lizitatzaile guztiek aurkeztutako administrazio-dokumentazioak ez duela inolako zuzenketarik behar, kontratazio-mahaiak 2. artxibo elektronikoak irekiko ditu (balio-judizioaren bidez baloratu beharreko dokumentazioa); bestela, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta Irunviko kontratatzailearen profilean irekiera-ekitaldirako lekua, eguna eta ordua finkatuko dira. 2. artxibo elektronikoak ireki ondoren, artxibo horietan jasotako dokumentazioa emango zaio artxibo horiek baloratzeko ardura duen organoari.

Irunviko kontratatzailearen profilean adierazitako tokian, egunean eta orduan, kontratazio-mahaiak 3. Artxibo Elektronikoak irekitzeko ekitaldi publikoa egingo du. Bertan, onartutako enpresa lizitatzaileek aurkeztutako 3. Artxibo Elektronikoan jasotako formulen bidez ebaluatu daitezkeen gainerako irizpideei buruzko dokumentazioa eta proposamen ekonomikoak jasoko dira.

Ekitaldi publiko horretan, eta 3. artxibo elektronikoak ireki aurretik, 1. artxibo elektronikoetan jasotako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzearen ondorioz lizitazioan onartu eta baztertu diren enpresa lizitatzaileen berri emango da, eta 2. artxibo elektronikoetan jasotako dokumentazioan aipatzen diren proposamenen alderdi teknikoen balorazioa irakurriko da.

18.3. PROPOSAMENEN SAILKAPENA.- Proposamenen batek aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat egiten ez badu, lizitazio-tipoa gailenduko balu, ezarritako eredua nabarmen aldatuko balu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena izango balu, edo enpresa lizitatzailearen ustez bideraezin izateko moduko akatsak edo ahultasunak izango balitu, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du arrazoitutako ebazpenaren bidez (APKLEOren 84. art.).

Hain zuzen ere, eskaintzatik baztertzeko arrazoia izango da formulen ezarpenaren bidez balioetsi behar diren irizpideen gaineko dokumentazioa aparteko artxibo elektroniko independente batean, proposamenaren gainerako dokumentuengandik bereizita, aurkezteko obligazioa bete ez izana.

18.4. PROPOSAMENEN EBALUAZIOA.- Kontratazio Mahaiak Agiri honen 19. Klausularen garrantziaren eta haztapenaren beheranzko ordenaren arabera jasotzen diren balioespen-irizpideen bidez ebaluatuko ditu proposamenak, eta horretarako egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu, eta kontratazio-organoari egokia deritzon proposamena egingo dio.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza anormalki baxua dela ikusten bada, hala badagokio, 17. klausulan adierazitakoaren arabera, SPKLaren 149. artikuluan aurreikusitako izapidea egingo da.

Bi eskaintza edo gehiagoren arteko berdinketa izango balitz, berdinketa SPKLaren 147.2 artikuluan jasotako irizpide sozialen ordena ezartzearen bidez ebatziko da, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean adieraziko direnak.

19.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabili behar diren eskaintzak baloratzeko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

- Balio-iritziari lotutako irizpideak, 2. artxibo elektronikoan sartuak.
- Proposamen ekonomikoa eta formulen bidez automatikoki ebaluatzen diren irizpideak, 3. artxibo elektronikoan sartuak..

19.1. Irizpide horietatik, balio-judizio baten mendekoak eta balioespen automatikoko irizpideen aurretik balioetsiko direnak honako hauek dira: (Guztira: 45 puntu):

a) Azalpen-memoria (45 puntu):

Baloratuko da:

1. Eskaintza tekniko onena. Gehienez 45 puntu

   a) Lan-plana eta metodologia, Gehienez 20 puntu.

Langileen antolaketa: 10 puntu.

Kontuan hartuko dira langileen antolaketa deskribatzeko erabiltzen diren zehaztasunak eta zehaztasunak, bai eta zerbitzua garatzeko esleitutako baliabideen egokitasuna ere.

Lan-plana: 10 puntu.

Zerbitzua osatzen duten eremuetako lanaren eta zereginen antolaketaren zehaztasuna eta zehaztasuna hartuko dira kontuan, baita horiek garatzeko erabiltzen diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak ere.
Kontuan hartuko da, halaber, enpresa lizitatzaileak hornitzaile eta lehengai homologatuak izatea, bai eta koadro nahikoa eta aukera desberdinak izatea zerbitzua edozein egoeratan estaltzeko.

   b) Autokontrol-plana, Gehienez 10 puntu.

Kontuan hartuko dira langileen antolaketa deskribatzeko erabiltzen diren zehaztasunak eta zehaztasunak, bai eta zerbitzua garatzeko esleitutako baliabideen egokitasuna ere.

   c) Menuen deskribapena, Gehienez 15 puntu.
   Kontuan hartuko da:
   - Barietatea.
   - Aurkezpena.
   - Produktu freskoak sartzea.
   - Sasoiko produktuak sartzea.
   - Eguneroko menuan eskainitako fruta piezen kopurua..
   - Eskainitako postreetan aukeratzeko aukera handiagoa..
     Eskainitako menuak urtaroetara egokitzea (udazkena-negua/udaberri-uda menua).

19.2. Balioespen automatikoko irizpideak eta horiek balioesteko erabiliko diren formulak honako hauek dira: (Guztira: 55 puntu):

a) Prezio baxuena: 55 puntu.

Lizitatzaileek bi proposamen ekonomiko aurkeztu beharko dituzte, kontzeptu hauekin:

A- Zerbitzuentzako prezio finkoak ezingo du inola ere gainditu agiri honetako 4. klausulan kontzeptu horrengatik ezarritako muga.

B- Menuen urteko prezio finkoa, baina inola ere ezingo da izan pleguan adierazitako 5,4 eurotik gorakoa. Horretarako, lizitatzaileak menuaren prezio unitarioa eskaini beharko du. Lizitatzaile bakoitzak aurkeztutako prezio unitarioan oinarrituta, Irunvik otorduen urteko kostu osoa kalkulatuko du, eragiketa matematiko honen arabera:

Eskainitako menuaren prezioa x 10 x 246 egun

Lizitatzaile bakoitzak eskainitako A eta B prezioen batura oinarri hartuta, aurkeztutako eskaintzak baloratuko dira, jarraian deskribatzen den metodologiari jarraituz:

Balorazioa egiteko, eskaintzarik onenari puntuaziorik altuena emango zaio, betiere, gutxienez, onartutako eskaintzei dagokienez:

- Lizitatzaile bakarra dagoenean, lizitazio-tasa gutxienez % 10 hobetzea.
- Bi lizitatzaile daudenean, batek bestea gutxienez % 40 hobetzea.
- Hiru lizitatzaile edo gehiago daudenean, onartutako eskaintzen batez bestekoa gutxienez % 40 hobetzea, eskaintza onena eta txarrena alde batera utzita.

Gainerako eskaintzen puntuazioa proportzionalki egingo da, jarraian deskribatzen den formula matematikoaren arabera, eta eskaintzak lizitazio-tasa berdintzen badu, zero puntura iritsiko da.

$$P_n = P_{max} \quad x \quad \frac{TL - V_n}{TL - V_{min}}$$

non,

Pn eskaintzak lortutako puntuazioa da.

Pmax da irizpide honekin esleitu beharreko gehieneko puntuazioa.

TL lizitazio-mota da.

Vn eskaintzaren balioa da./ebaluatu beharreko eskaintzaren irizpide honetarako balioa da.

Vmin da IRUNVIrako balio aldekoena./IRUNVIrako balio aldekoena da, hau da, onartutako eskaintzen batez bestekoa goian aipatutako kasuetan eta ehunekoetan hobetzen duen eskaintza teorikoa edo erreala.

Lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzek deskribatutako kontzeptuengatik eskainitako balioa izango dute, eta eurotan formulatu beharko dira (zenbakitan eta letran), jasanarazi beharreko BEZaren zenbatekoa partida independente gisa adierazita; hori guztia agiri honen VII. eranskineko ereduari jarraituz.

Eskainitako prezioek edozein tributu mota hartuko dute barne, hau da, erkidegokoa, estatukoa, autonomikoa, forala edo tokikoa, BEZarena izan ezik, horren zenbatekoa, ereduan agertzen den bezala, bereiz adieraziko baita.

Kanpoan geratuko dira letraz adierazitako prezioaren eta zenbakiz adierazitakoaren artean desadostasunak dituzten eskaintza ekonomikoak.

Kontratazio-mahaiak atzera botako ditu, arrazoitutako ebazpen bidez, honako eskaintza hauek:

- Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.

- Eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen dena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.

- Ezarritako eredua nabarmen aldatzen dutenak.

- Proposamenaren zenbatekoan ageriko akatsa dakartenak.

- Errorea edo funtsik eza badute eta horrek bideraezin bihurtzen badu lizitatzaileak onartua.

20.- ESLEIPEN-PROPOSAMENA

Sailkapenak haztatu ondoren, kontratazio-mahaiak beheranzko ordenan sailkatuko ditu, eta esleipen-proposamena egingo du puntuaziorik onena duen hautagaiaren alde, eta kontratazio-organora eramango du.

SPKLaren 139.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, proposamenak aurkeztuz gero, kontratazio-mahaiak eta -organoak baimena izango dute Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kide baten eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Esleipen-proposamenak ez dio esleipendunari inolako eskubiderik ematen IRUNVIrekiko harremanetan.

21.- KONTRATATZEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA

Mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatuko dio, jakinarazpen elektroniko baten bidez, behin betiko bermea, hau da, SPKLaren 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa eratu dezan (fidagarritasuna kanpoko baliabideekin integratzea), eta aipatu lege testuaren 76.2 artikuluaren arabera kontratua betearazteko erabiltzeko edo atxikitzeko agindu dituen baliabideak benetan badituela dokumentazioaren bidez egiazta dezan, hori guztia 7 egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

SPKLaren 96. artikuluan ezarritakoaren arabera, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioaren ziurtagiria izanez gero, indarreko ziurtagiria duten inskribatutako lizitatzaileek kontratazio-deialdietan ez dute ziurtagiri horretan jasotzen diren datuei dagokien dokumentaziorik aurkeztu beharko, hain zuzen ere, eta kontrakorik egiaztatu ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzen gaineko dokumentazioa, hau da, bere izaerari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari,

trebezia profesional eta enpresa-trebeziari, fidagarritasun ekonomikoari eta finantzarioari dagokienez, eta ez dute egiaztatu beharko ere egiaztagiri horretan agertu beharko liratekeen kontratatzeko galarazpenak ote dituzten edo ez. Hala ere, enpresaburuak klausula honetan eskatzen den eta aipatu ziurtagirian agertzen ez den dokumentazioa aurkeztu beharko du, besteak beste, IRUNVIk berariaz exijitzen duena.

Gainera, Mahaiak enpresari (edo ABEE osatzen duten enpresei) eskatuko die, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta agertzeko obligazioa exijitzeko premiarik ez dagoenean, edo datuen edo dokumentuen arteko batzuk aipatu Erregistroan inskribatuta agertzen ez direnean, epe horretan bertan honako dokumentazio hau aurkez dezaten:

a) Lizitatzailearen izaera egiaztatzeko dokumentuak:
   - Lizitatzailea pertsona juridikoa izango balitz, lizitatzailearen nortasuna Merkataritza Erregistroan inskribatutako Eratzeko edo aldatzeko eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori exijitu daitekeenean. Betekizun hori betetzea nahitaezkoa ez bada, beren jarduera arautzen duten arauak biltzen dituen estatutuak edo fundazio-akta aurkeztuko dituzte. Hala badagokio, dokumentu horiek dagokion Erregistro ofizialean erregistratuta egingo dira. Pertsona juridikoak bere estatutuen edo eratze-arauen arabera bereak diren helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan jasotzen diren prestazioen kontratuen esleipendunak izan ahalko dira soilik; kontu hori aurkeztutako dokumentazioan egiaztatu beharko da.

   - Lizitatzailea pertsona fisikoa izango balitz, Nortasun Agiri Nazionala edo horren ordezko dokumentua aurkeztuz.

b) Eskaintzaren sinatzaileak duen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (baldin eta horrek beste pertsona baten izenean jarduten badu, pertsona hori fisikoa edo juridikoa izan).

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea.

d) Ekitaldi horretan alta emanda izatea Jarduera Ekonomikoen Zergan. Gainera, azkeneko ordainagiria aurkeztuko da, aipatu zergaren matrikulan bajarik izan ez dela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpen batekin batera, edo hala badagokio, salbuetsita dagoela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.

e) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

f) Berariazko aitorpena, atzerriko enpresen kasuan, Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean jartzeko asmoa dutela adierazten duena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako; hala badagokio, lizitatzaileari dagokion atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diote.

g) Fidagarritasun ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzea, eskaintza aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera, Agiri honen 14. Klausulan aipatzen den dokumentazioa aurkeztuz.

Kontratua enpresen aldi baterako elkarte bati esleitzen bazaio, elkarteak bere eraketa eskritura publiko bidez egiaztatuko du, baita elkarte horri esleitutako IFK ere, kontratua formalizatu baino lehen. Enpresa-elkartearen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, kontratua amaitzen den arte.

Lizitazioan Europar Batasuneko Estatu-kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioa sinatu duen herrialde bateko atzerriko enpresaburuak aurkeztuz gero, horren gaitasuna, fidagarritasuna eta galarazpenik eza egiaztatzeko, Estatu-kide baten baimendutako eragile ekonomikoen dagokion zerrenda ofiziala egiaztatu ahalko da, edo aipatu baldintzak egiaztatzeko dokumentuak ere aurkeztu ahalko dira.

Aurreko dokumentu guztien jatorrizko agiriak edo kopia ziurtatuak edo konpultsatuak aurkeztu ahalko dira, edo baita horien fotokopia soilak ere. Azkeneko kasu horretan, eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak aipatu dokumentazioaren jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko ditu kontratua esleitu aurretik.

Aurkeztutako dokumentazioan akatsak edo zuzendu beharreko omisioak hautemango balira, lizitatzaileari jakinaraziko zaio, eta horretarako hiru egun balioduneko epe maximoa emango zaio, akats horiek Kontratazio Mahaiaren aurrean zuzen ditzan.

Lizitatzaileen Eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresek ez dute a), b) eta g) ataletan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko. Ziurtagiriaren bitartez egiazta daitezkeen gaitasuna eta fidagarritasuna egiaztatzeko agiriei soilik lotuko zaie salbuespen hori.

Lizitatzaileak eskatutako dokumentazioa aipatu epean aurkeztuko ez balu, dokumentazio hori zuzenduko ez balu, edo aurkeztutako dokumentazioa aztertzean egiaztatzen bada ez dituela agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen, ulertuko da eskaintza baztertu duela eta kontratua bere alde esleitzea galarazi duela, SPKLaren

71.2.a) artikuluan ezarritako kontratatzeko galarazpen-arrazoia sortuz; era berean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa exijituko zaio, BEZ kanpo, zigor moduan. Kasu horietan, Kontratazio Mahaiak kontratazio-organoari proposatuko dio hurrengo lizitatzailearen aldeko esleipena egin dezan, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera, kontratatzeko gaitasuna IRUNVIrekin egiaztatu ondoren, eta dagokion dokumentazioa horretarako ezarritako epean aurkeztuz.

22.- BEHIN BETIKO BERMEA

22.1. SPKLaren 145. artikuluan ezarritakoaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du esleipen-prezioaren % 5eko zenbateko baliokidearekin, BEZ kanpo.

Berme hori eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da, aurreko Klausulan aipatzen den jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Esleipendunak jarritako bermea itzultzea eska dezake kontratuaren betearazpena amaitzen denean, eta agiri honetan ezarritako berme-epea igarotzen denean.

Bermeak SPKLaren 108. Artikuluan onartutako edozer eratara eratu daitezke (diruz, zor publikoaren baloreak, abala edo kauzio-asegurua), eta indarreko legeriak onartutako baldintzetan.

22.2. SPKLaren 149.7 artikuluak agintzen duen egintza-suposizioa gertatuz gero, esleipendunak, aurreko klausulan exijitzen den behin betiko bermeaz gain, kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren % 5eko berme osagarria emango du.

Berme hori behin betiko bermerako ezarritako epe eta baldintza beretan eratuko da.

23.- KONTRATUAREN ESLEIPENA

23.1.- Behin betiko bermea eratu eta aipatu dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak, gastuaren konpromisoa fiskalizatu ondoren, kontratua esleituko du dokumentazioa jasotzen den egunaren hurrengo bost egun baliodunen barruan.

23.2.-Esleipena arrazoitua izango da, hautagaiei edo lizitatzaileei baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko da, eta aldi berean, IRUNVIko profilean argitaratuko da hamabost eguneko epean.

23.3.- Kontratazio-organoak lizitazioa esleitzeke deklaratu ahal izango du, hala dagokionean, kontratazio-mahaiaren proposamenez, klausulen agirian biltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat ez dagoenean.

23.4.- Kontratazio-organoak esleipen-prozedurari uko egiten badio edo ez esleitzea erabakitzen badu edo deialdiaren xede den kontratua ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko die, Europako Batzordeari ere erabaki horren berri emango dio.

Ez esleitzeko edo kontratua ez egiteko edo prozedurari uko egiteko erabakia kontratazio-organoak adostu ahalko du formalizazioa egin aurretik. Kasu horietan, lizitazioan parte hartzeko hautagai edo lizitatzaile onargarriak konpentsatuko dira izan ahal izan dituzten gastuak direla eta, beti ere, gastu horiek behar bezala justifikatzen badira, edo hala ez bada, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balioespen-irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen izapideen bidez.

Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia hartu ahal izateko, espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak izan beharko dira. Kasu honetan, ezingo da helburu bera duen beste lizitaziorik bultzatu, uko egitearen oinarri moduan aurkeztutako arrazoiek bere horretan dirauten artean.

Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo esleipen-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat egon behar du, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia. Atzera egiteak ez du eragotziko berehala beste lizitazio-prozedura bat hastea.

23.5.-Edozelan ere, eta SPKLaren 153,3 artikuluari jarraiki, kontratua zenbateko epean formalizatu behar den adierazi beharko da jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean.

23.6.- Kontratuaren esleipena gehienez ere bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Aipatu epearen barruan esleipen-akordioa emango ez balitz, lizitatzaileek beren eskaintza kentzeko eskubidea izango dute.

23.7.- Aurkeztutako proposamenak —onartutzat hartutakoak, ireki gabe bazter utziak edo irekitakoan ezetsitakoak— espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu eta errekurtsoak jartzeko epea amaitzen bada batere jarri gabe, interesatuen eskura jarriko dira proposamenekin batera doazen agiriak.

Enpresa lizitatzaileek urtebeteko epean eskatzen ez badute, dokumentazio hori suntsitu egin daiteke.

24.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

24.1.- Kontratuaren formalizazioa hamabost egun balioduneko epearen barruan egingo da, esleipenaren jakinarazpena egiten den biharamunetik zenbatzen hasita, eta SPKLaren 154. artikuluan ezarritako moduan argitaratuko da.

24.2.- Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den dokumentuan formalizatu beharko da. Kontratua formalizatzeko egiten den agirian ezin izango da sartu esleipen-baldintzak aldatzen dituen klausularik.

Kontratua formalizatzeko dokumentua agiri nahikoa da edozer erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak eska dezake kontratua eskritura publikora eramatea, protokolizazioko notario-gastuak bere gain hartuz.

Kontratua formalizatzen denean burutzen da, eta inola ere ezingo da kontratuaren betearazpena hasi formalizatu aurretik.

24.3.- Enpresa esleipendunari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epe barruan formalizatuko ez balitz, IRUNVIk lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa exijituko du, BEZ kanpo, zigor moduan, behin betiko bermearen aurka gauzatuko dena, berme hori eratu izan balitz, SPKLaren 71 artikuluaren 2. atalaren b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kasu horretan, kontratua eskaintzen sailkapen-ordenaren araberako hurrengo enpresa-lizitatzaileari esleituko litzaioke, Agiri honen 21. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, aurreko ataletan ezarritako epeak ezarriz.

Ez formalizatzeko arrazoiak IRUNVIri egotz badakizkioke, kontratistari atzerapenak sorrarazi ahal izan dituen kalteen ordainak emango zaizkio.

25.- KONTRATUA BETEARAZTEA

25.1- Arriskuaren eta menturaren printzipioa.

Kontratua kontratista esleipendunaren arrisku eta menturapean beteko da.

25.2.- Kontratistaren betearazpena eta erantzukizuna.

Kontratua bere klausuletan, Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Agirian eta gainerako kontratu-dokumentuetan ezarritakoaren arabera beteko da.

Garatzen dituen lanen eta egiten dituen zerbitzu eta prestazioen kalitate teknikoaren erantzulea izango da kontratista, baita kontratua betetzean egindakoengatik (gabeziak, akatsak, metodo ezegokiak erabiltzea edo lanak behar bezala ez amaitzea) IRUNVIri edo hirugarrenei sor dakiekeen ondorioen erantzulea ere. Hirugarrenei sortutako kalteen ordainaren ardura hartuko du kontratistak.

Esleipenduna ustezko ezohikotasun-egoeran izango balitz, kontratazio-organoak kontratua betearazteko jarraipen xehatua egiteko mekanismo egokiak ezarriko ditu, kontratuaren betearazpen egokia bermatzeko helburuarekin, zerbitzuen, obren edo kontratatutako hornikuntzen kalitatea murriztu gabe.

25.3.- Ezinbesteko kasuan.

Ezinbesteko kasuetan, eta beti ere enpresa kontratistaren aldetik jarduera zuhurtziagabetik existitzen ez bada, enpresa kontratistak indemnizazioa jasotzeko eskubidea izango du sortu ahal izan zaizkion kalte-ordainengatik.

Ezinbesteko kasuak izango dira SPKLaren 239. artikuluan ezarritakoak, APKLEOaren 146. artikuluan ezarritakoaren arabera bideratuko direnak.

25.4.- Kalte-galerak.

Ez-betetze partzialaren, betetze okerraren edo egikaritzea berandutzearen kasuetarako zigorrik aurreikusi ez bada, edo zigorra aurreikusi arren, Administrazioak eragindako kalteak estaltzeko gauza ez bada, Administrazioak enpresa kontratistari kalte-galerengatiko ordaina eskatuko dio.

25.5.- Enpresa kontratatzaileari egindako ordainketak.

Esleipendunak hileko faktura bat egingo du, esleipenaren prezio finkoaren zenbatekoa 12 hilabetez zatituta ateratzen den berdina, gehi zati aldakorraren esleipenaren prezioan hilero zerbitzatutako menu kopurua. Faktura banku-transferentzia bidez ordainduko da, esleipendunak emandako kontu korrontean, kontratuaren arduradunak oniritzia eman ondoren.

25.6.- Ingurumen-, gizarte- eta lan-arloan. Enpresa kontratatzaileak ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko indarreko xedapenak bete behar ditu, Europar Batasuneko zuzenbidean, Estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotesten duten nazioarteko ingurumen-, gizarte- eta lan-zuzenbidearen xedapenetan, eta bereziki SPKLaren V. Eranskinean ezartzen direnetan.

Bereziki:

- Kontratistak lan-arloko betebeharrak beteko ditu, eta Gizarte Segurantzako, Istripuen, Mutualitateen eta lan-arloko gainerako kuoten ordainketak eguneratuta izan beharko ditu. Hain zuzen ere, une bakoitzean indarrean dagoen eta ezarri behar den hitzarmen kolektiboaren azkeneko testuaren edo hori berrikusiko duten ondorengo hitzarmen kolektiboen lan-baldintzak ezarri beharko ditu, eta kontratistaren ardura izango dira betebehar horiek bete ez izanaren ondoriozko erantzukizun guztiak. Zerbitzu teknikoek kontratistari eskatu ahalko die lan-arloko obligazioak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu dezala, eta kontratistak, inolako aitzakiarik gabe,

obligazio horiek bete beharko ditu; eta bereziki enpresa esleipendunak, eta hala badagokio, azpikontratazioaren kateko enpresa guztiek ere, indarreko hitzarmen kolektiboa edo hitzarmen hori berrikusiko duten ondorengo hitzarmen kolektiboak ezartzeko obligazioa izango dute, bereziki kontratuaren betearazpenera atxikitako langileei soldata ordaintzea. Eragin horretarako, eta Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202 artikuluan azarritakoaren arabera, sektoreko eta lurraldeko hitzarmen kolektibo ezargarriak betetzea kontratuaren funtsezko obligazioa izango da.

- IRUNVIk inola ere ez du bere gain hartuko kontratua betearazteko kontratistak erabiltzen dituen langileen inolako lan-harremanik edota diruzko erantzukizunik.

- Kontratistari dagokion berariaz langileak aukeratzea, zeinak, agirietan exijitzen diren titulazio- eta esperientzia-baldintzak betez gero, kontratuaren betearazpenari atxikitako lan-taldearen parte izango baitira, IRUNVIk baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeari kalterik egin gabe.

- Enpresa kontratista lan-taldean egonkortasuna mantentzen saiatuko da, baita lan-taldearen osaeraren aldaketak txikiak izan daitezen eta justifikatutako arrazoien ondoriozkoak izan daitezen ere, lanen funtzionamendu ona ez aldatzeko, IRUNVIri horren berri emanez une oro. Enpresa esleipendunak behar besteko ordezkapen-baliabideak izan beharko ditu edozer gertakariri erantzuteko.

- Enpresa kontratistak enpresaburu orori atxikitako zuzendaritza-ahalmena benetan, modu eraginkorrean eta etengabe baliatzeko betebeharra hartzen du bere gain, kontratua egikaritzeaz arduratzen den lantaldeko langile guztiei dagokienez. Bereziki, bere betebehar izango dira honako hauek: soldatak negoziatu eta ordaintzea; baimen, lizentzia eta oporrak ematea; bajarik edo absentziarik izanez gero, ordezkoak jartzea; Gizarte Segurantzari dagozkion legezko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea ere barnean hartuta, hala dagokionean; lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak betetzea; diziplina-ahala baliatzea; eta enplegu-emailearen eta enplegatuaren arteko kontratu-loturatik ondorioztatutako eskubide eta betebehar guztiak.

Atal honetan jasotako lan-obligazioak kontratua **betearazteko funtsezko baldintzak** izango dira, SPKLaren 202. artikuluan ezarritakoaren arabera; artikulu hori betetzen ez bada, agiri honetan aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

25.7.- Lan akastunak edo gaizki egikarituak.

Agiri honen 25.10 klausulan ezarritako bermealdia igaro arte, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratatutako lanak ongi egitea eta egon litezkeen akatsak, eta IRUNVIko ordezkariek lan horiek egin bitartean aztertu eta arakatu izanak edo

egiaztapen, balioespen edo ziurtagiri partzialetan onartu izanak ez du erantzukizun horretatik salbuetsiko, eta ez dio, halaber, inolako eskubiderik emango.

Lan akastuna edo gaizki egikaritua IRUNVIren agindu baten berehalako ondorio zuzena denean, aldiz, erantzukizun horretatik aske geratuko da.

IRUNVIren ustez kontratuko baldintza teknikoak bete ez badira, APKLEOaren 203. artikuluan ezarritakoa beteko da, eta prestazioak harrerarako behar diren baldintzak betetzen ez baditu, berriz, APKLEOaren 204. artikuluan eta agiri honen 13.14 klausulan ezarritakoari jarraituko zaio.

25.8.- Zerbitzua bermatzeko eta jasotzeko epea.

Kontratu honen ezaugarri zehatzak direla eta, ez da ez berme-eperik ez harrera-eperik ezartzen.

25.9.- Azpikontratazioa. Kontratuaren esleipendunak hirugarrenekin hitzartu ahalko du kontratuaren betearazpen partziala, beti ere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Nolanahi ere, azpikontratazioaren aurretik, IRUNVIri idatziz ematea egin beharreko azpikontratuaren berri, azpikontratistak bete beharreko kontratuaren alderdiak adieraziz, baita alderdi horien zenbatekoak eta azpikontratistaren nortasuna ere; era berean, azpikontratistak kontratua gauzatzeko nahikoa fidagarritasun edo gaitasun duela egiaztatu beharko da, eskura dituen elementu teknikoei eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez. IRUNVIk ezingo du azpikontratazioaren baten aurkako jarrerarik izan arrazoitu gabe; baina arrazoituz gero, esleipendunak azpikontratazio hori bertan behera utzi beharko du.

b) Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren betearazpen partziala kontratatzeko gaitu gabeko pertsonekin, ordenamendu juridikoaren arabera edo Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluaren zenbait suposizioetan jasotakoaren arabera. IRUNVIri egiten zaion jakinarazpenarekin batera, egin beharreko azpikontratuari egoera horren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko zaio.

   Hala ere, IRUNVIk kontratuaren edo azpikontratuaren betearazpenaren edozer unetan exijitu ahalko du esleipendunak dokumentazio bidez egiazta dezala obligazio horiek betetzen dituela; horretarako, kontratista nagusiak azpikontratatutako enpresa guztien kontratuetan dokumentazioa egiaztatzeko obligazio horiek guztiak ezarri beharko ditu.

c) Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari informazio horrek kontratu nagusia betearazten den bitartean izan dezakeen edozer aldaketa, eta azpikontratista berrien gaineko informazio guztia.

d) Kontratistak obligazioa hartu behar du azpikontratistei hitzartutako prezioa ordaintzeko, agiri honetan ezarritako epeak eta baldintzak baino kaltegarriagoak izan ez daitezen IRUNVIren eta kontratatzailearen arteko harremanetarako.

e) Nolanahi ere, enpresa azpikontratatzaileak araudi ezargarriak exijitzen dituen gaikuntzak eta baimenak izan beharko ditu.

IRUNVIk kontratista nagusiaren aurreko obligazioa izango du soilik. Beraz, kontratista nagusia erabat arduratuko da azpikontratatzaileek kontratua egikaritu dezaten IRUNVIren aurrean, Agiri honen eta kontratuaren baldintzak hertsiki betez.

f) IRUNVIk egiaztatu ahalko du kontratuen kontratista esleipendunek azpikontratatzaile guztiei edo kontratuetan parte hartzen duten hornitzaileei ordainketak zuzen egiten dizkietela.

Kasu horretan, kontratista esleipendunek IRUNVIri bidaliko diote, horrek hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratatzaileen edo hornitzaileen zerrenda xehatua, horien parte-hartzea burutzen denean, ordainketa-epearekin lotura zuzena duten horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzekin batera. Era berean, haiei egindako ordainketen ordainagirien eskaerak ere aurkeztu beharko dira.

Enpresa esleipendunak aurreikusi baldin badu kontratuaren xede diren prestazioetako bat(zuen) azpikontratazioa kontratua betetzeko hasieratik, kontratuaren esleipena jakinarazi ondoren eta haren formalizazioaren aurretik, honako hauek jakinaraziko dizkio IRUNVIri: azpikontratistak(ek) gauzatu beharreko kontratu zatia(k), horien zenbatekoa eta azpikontratist(ar)en nortasuna, aldez aurretik aipatutako dokumentazioa aurkeztuta.

25.10.- Kontratua lagatzea..

Inola ere ez da lizitazio honen ondoriozko kontraturik lagako.

25.11.- Kontratu-aldaketak..

Kontratua formalizatu ondoren, kontratazio-organoak aldaketak sartu ahalko ditu soilik bertan, interes publikoko arrazoiak direla eta SPKLaren 203.2 b) eta 205 artikuluetan aurreikusitako suposizioetan, baldintzetan eta mugetan.

Kontratuaren aldaketak bermea berregokitu ondoren formalizatuko dira, 153. artikuluaren arabera, eta SPKLaren 63. eta 207. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu beharko dira.

Beste edozer suposiziotan, kontratua hitzartutakoaren aldean beste era batera betearazi beharko balitz, kontratua ebatziko da eta beste kontratu bat gauzatuko da dagozkion baldintzen arabera, deialdi berri bat egin ondoren, hala badagokio, eta lizitazio publiko berri bat egin ondoren, SPKLan aurreikusitakoaren arabera, 213. artikuluaren 6. atalean ezarritakoari kalterik egin gabe, kontratistak zerbitzuari kalte larriak saihesteko behar diren neurriak hartzeko duen obligazioari dagokionez.

25.12.- Kontratua indargabetzea. IRUNVIk esleipendunarekin akordio batera iritsi ondoren, kontratuaren betearazpena indargabetzea erabaki dezake aurreikusi gabeko arrazoien ondorioz gertatzen denean; horretarako, espedientean behar bezala justifikatu beharko da, eta akta bat jasoko da, non indargabetze hori arrazoitu duten egoerak jasoko diren, baita kontratuaren betearazpenaren izatezko egoera ere.

Kontratistak ezingo du inola ere lanen betearazpena eten hitzartutakoaren ezarpenean desadostasunak daudelako, eta arrazoi horien ondoriozko kalte-ordainei erantzun beharko die, gauzatu nahi dituen ekintzei edo erreklamazioei kalterik egin gabe.

25.13.- Kontratuaren ebazpena. Kontratuak iraungiko du kontratua ebazten edo amaitzen edo betetzen delako. Hortaz, honako hauek dira ebazteko arrazoiak:

- Kontratuaren funtsezko klausulak ez betetzea.

- Banakako kontratistaren heriotza edo bat-bateko ezintasuna, edo sozietate kontratistaren izaera juridikoa iraungitzea. Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresa-bategiteen kasuetan, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bategitearen emaitzazkoarekin, eta kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edo enpresa horien jarduera-adarren bereizketa, ekarpen edo transmisio kasuetan, kontratuak ondoriozko erakundearekin edo onuradunarekin jarraituko du, eta kontratua erakunde horren ondoriozko eskubideetan eta obligazioetan subrogatuko da, beti ere esleipena adosten denean exijitzen den fidagarritasuna badu.

- Kontratista epeak betetzean berandutzea.

- Kontratua lagatzea.

- IRUNVIren eta kontratistaren arteko akordioa.

- Lehiaketa-adierazpena edo kaudimengabeziaren adierazpena beste edozer prozeduratan.

- Esleipendunaren Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin betebeharrak izatea betetzeke.

- IRUNVIren zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenak oztopatzea.

- Kontratua betetzen den bitartean kontratistak kontratuan parte hartzen ari ziren langileei soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzako indarreko hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea kontratuak irauten duen bitartean.

Kontratua kontratistari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik ebazten denean, kontratistak kalte-ordainak eman beharko dizkio IRUNVIri sortutako kalteengatik. Indemnizazioa eraginkor bihurtuko da bermearen gainean, esleipendunak duen erantzukizunaren iraupenari kalterik egin gabe, hautemandako bermea gailentzen duen zenbatekoari dagokionez.

25.14.- Kontratistari ezarri beharreko zigorrak ez betetzeagatik.

a) Kontratuaren betearazpen-epeak ez betetzea.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratua betetzeko epeak, nola guztizkoa hala, halakorik balego, epe partzialak, atzeratuko balira, Administrazioak kontratua suntsiaraz dezake, bermea galduz, edo egun bakoitzeko zigorra ezar dezake, kontratuaren prezioko 1.000 euroko 0,60euroko proportzioan, BEZ kanpo.

Atzerapenagatiko zigorra kontratuaren prezioaren % 5en multiplora iristen den bakoitzean, Kontratazio Organoak eskumena izango du hura suntsiarazteko edo, beste zigor batzuk ezarriz, hura gauzatzen jarraitzea adosteko.

b) Prestazioen betearazpen partzialaren ez-betetzea.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratuan zehaztutako zerbitzuak zati batean gauzatuko ez balira, Administrazioak kontratua suntsiaraz dezake edo kontratuaren prezio osoaren % 10i dagokion zigorra ezarri.

c) Betetze akastuna

Prestazioaren betetze akastuna gertatuz gero, IRUNVIk zigorrak ezarri ahalko ditu, eta zigor horietako bakoitzak kontratuaren prezioaren % 10aren kopurua izango du gehienez ere, BEZ kanpo, eta zigor horien totalak ezingo du hitzartutako prezioaren % 50 gainditu.

d) Kontratuaren funtsezko obligazioak ez betetzea.

Kontratuaren funtsezko obligazioak betetzen ez badira, bereziki soldatak ordaintzean atzerapenak izan badira behin eta berriz, edo hitzarmen kolektiboen ondoriozkoak baino soldata-baldintza baxuagoak ezarri badira modu larrian eta engainagarrian, IRUNVIk zigorrak ezarri ahalko ditu, eta zigor horietako bakoitza kontratuaren prezioaren % 10ekoa izango da gehienez ere, BEZ kanpo; eta zigor horien totala ezingo da hitzartutako prezioaren % 50 baino handiagoa izan.

e) Azpikontratistekin obligazioak ez betetzea

Kontratistak azpikontratistekin dituen obligazioak ez betez gero, IRUNVIk zigorrak ezarri ahalko ditu, eta zigor horietako bakoitza ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino gehiago, BEZ kanpo, eta zigor horiek guztira, ezingo dira izan hitzartutako prezioaren % 50 baino gehiago.

25.15.- Subrogazioa.

Agiri honetan oinarrituta erabakitzen den kontratazioa, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan hala ezartzen bada, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileen lan-kontratuen subrogazioaren mende egongo da, ezartzen diren modu eta baldintzetan, aipatutako hitzarmenean ezartzen diren modu eta baldintzetan.

SPKLren 130. artikuluan aurreikusitako informatzeko betebeharra aplikatuz, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa ematen da, enpresa lizitatzaileei aukera emateko benetako lan-kostuak behar bezala ebaluatzeko esleipendun izatea. Informazioa honetan datza: subrogazioaren xede diren langileen zerrenda, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, lan-kategoria, kontratu mota, antzinatasun-data, lanaldia, kontratuaren amaiera, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, subrogazioak eragiten dien langileei aplikatu beharreko indarreko itunak, eta Nahitaezkoa denean, titulazioa: Agiri honi erantsita doa egungo zerbitzu-emaileak bidalitako dokumentazioa, subrogatuko diren lan-kontratuko langileak zehaztuta.

Kontratua enpresa berriari esleitu ondoren, baina kontratua gauzatzen hasi aurretik, zerbitzua emateari uzten dion enpresak ziurtagiri bat emango dio esleipendun berriari, eta bertan, langileen izena, jaioteguna eta zenbateko osoa jasoko dira. Edozein motatako hartzekoak (ordainsari-kontzeptuaren arabera banakatuta), antzinatasuna, kontratu-modalitatea, kontratuaren epemuga, lanaldia, lanbide-kategoria edo -talde aplikagarri guztiak eta indarrean dauden itun guztiak, bai eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria ere, honako hauek egunean dituela egiaztatzen duena: Gizarte Segurantza eta dagokion zati proportzionalen likidazioaren ordainagiriak; era berean, esleipendun berriaren esku jarriko ditu hark egokitzat jotzen dituen dokumentuak, hori guztia egiazkoa dela egiaztatzeko. Enpresak langileen

ordezkaritza duen kasuetan, ziurtagiriarekin batera enpresak egindako txostena aurkeztu beharko da, gutxienez, aurreko paragrafoan adierazitako datuei buruzkoa.

Subrogazioa egin ondoren, lan-kostuak kontratista zaharrak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino handiagoak badira, kontratista berriak akzio zuzena izango du kontratista zaharraren aurka.

Zerbitzua uzten duen kontratistak subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldaten erantzukizuna izango du, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioena ere, kontratua suntsiarazi eta kontratista berriak langileak subrogatzen baditu ere. Nolanahi ere, betebehar hori ez da inola ere bete beharko. Azken horri dagokio (salbu eta subrogazioa Langileen Estatutuaren 44. artikulua aplikatuta gertatu bada. Horretarako, erakunde kontratatzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion zenbatekoak atxikiko ditu, soldata horiek ordainduko direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko, horiek ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean.

Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratugilea kondenatzen bada horrek dakartzan ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio. Horretarako, Irunvik beretzat gordetzen du egokiak eta komenigarriak diren akzio administratibo edo judizialak egikaritzea, zenbatekoak guztiz berreskuratu arte.

26.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratatutako zerbitzuekin loturik enpresa esleipendunak ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat hartuko dira, eta halakoen nortasuna eta sekretua gorde beharko ditu.

Enpresa esleipendunak IRUNVIri eta kalteturiko pertsonei kalte-ordaina eman beharko die sekretu profesionala hausteagatik sortutako kalte eta galerengatik.

Enpresa esleipendunak kontratua betetzeko beharrezkoa delako datu pertsonalak erabili eta tratatu behar baditu, Datu pertsonalak babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoak eta hura garatzen duen araudiak xedaturikoa beteko da.

Enpresa esleipendunak kontratua dela eta eskuratzen dituen datu pertsonalak ezin izango ditu bertan agertzen dena ez bestelako xede baterako erabili, ez eta beste pertsona batzuei laga, ezta gordetzeko ere.

Kontratuan jasotako prestazioa betetakoan, tratatutako datu pertsonalak IRUNVIri eman beharko zaizkio.

27.- IRUNVIREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

27.1. IRUNVIk ahalmena dauka kontratuak interpretatzeko, kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak erabakitzeko, interes publikoko arrazoiak daudenean kontratua aldatzeko, kontratua betetzearekin loturik kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adierazteko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko eta izango dituen ondorioak zehazteko. Egiteko horietan SPKLk eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio publikoen kontratuen Legearen araudi orokorra onartzen duenak, ezartzen dituzten mugak eta baldintzak aplikatuko dira.

Era berean, IRUNVIk, enpresa kontratistek kontratua betetzeko lanetan egindako jarduerak ikuskatzeko eskumena du, aipaturiko lege horretan ezartzen den bezala eta bertan zehaztutako mugen barnean.

IRUNVIk kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatuta hartzen dituen erabakiak berehala bete beharko dira.

27.2. Jurisdikzio ordena Kontentzioso Administratiboak izango du eskumena IRUNVIk egiten dituen kontratuen prestakuntzarekin eta esleipenarekin loturik aldeen artean sortzen diren eztabaidak erabakitzeko.

Jurisdikzio ordena zibila izango da alderdien artean sortutako eztabaidak erabakitzeko eskumenak dauzkana IRUNVIK egiten dituen kontratuen ondorio, betetze eta iraungipen kontuei dagokienez.

27.3. SPKLren 47. artikuluan aurreikusitako kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jartzen bada, abenduaren 23ko 5/2010 Legeak sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Organo Administratiboak bideratuko ditu errekurtso horiek.

27.4. Auzirik badago, Gipuzkoako auzitegien eta epaitegien mende gelditukо da esleipenduna, eta berariaz uko egingo dio bere jurisdikzio foruari.

I ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA..

1. Kontratazio-prozedurarako izapideak egiteko lizitazio-prozeduraren sistema erabiltzeko baldintzak (dokumentuak bidaltzea, kontratua sinatzea, jakinarazpenak jasotzea, etab.).

1.1– Administrazio-betekizunak:

a) Izapidetze elektronikoaren xedeetarako Irungo Udalak erabiltzeko baimendutako ziurtagiri digital baten jabe izatea. Une honetan honako ziurtagiri elektroniko hauek daude indarrean:

- IZENPE (Erakundeak, Herritarrak, Erakunde Ordezkariak)
- FNMT (Erakundeak, Herritarrak, Erakunde Ordezkariak)
- NAN-e
- Camerfirma (Erakundeak, Herritarrak)

b) Honako bi egoera hauetako batean egotea:

- Euskadiko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarreko ziurtagiria edukitzea.
- Lizitazio elektronikorako behin-behineko gaikuntza-sisteman alta emanda izatea.
- Eragile ekonomiko bi edo gehiago elkarrekin formalki ABEE bat eratzeko konpromisoarekin aurkezten direnean, ABEE konpromiso hori behin-behineko gaikuntza-sisteman erregistratu beharko da.

1.2 – Baldintza teknikoak:

Betekizun teknikoei buruzko informazioa honako lotura honetan dago eskuragarri:

http://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu/

1.2 - Lizitazio elektronikoari buruzko zalantza edo gorabeheretarako euskarri-zerbitzua: 945016298.

2. Lizitazio elektronikoaren sisteman sartzeko modua:

Sistema erabiltzeko, atarian sartu behar da:

www.contratacion.euskadi.eus

II. ERANSKINA.- KONTRATAZIORAKO AGIRI EUROPAR BAKARRA (KAEB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.-Lizitatzaileak KAEB aurkezteak lizitazio-prozedura honetan parte hartzeko agiri honetan zehaztutako AURRETIAZKO BALDINTZAK BETE IZANAREN hasierako froga moduan balio du.

Lizitatzaileek KAEB aurkeztu beharko dute, hau da, finantza-egoeraren erantzukizunpeko adierazpen bat, kontratazio publikoko prozedura batena parte hartzeko enpresen gaitasunak eta egokitasuna, SPKLaren 140. artikuluaren eta **2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (UE) Europako Batzordeko Betearazpen Erregelamenduaren**, horren formulario normalizatua eta hori betetzeko jarraibideak ezartzen dituenaren arabera.

Kontratazio-organoak LEHENENGO gutun-azalean aurretiaz aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko gaitasunak erabili ahalko ditu, eta horretarako, dagozkion egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Nolanahi ere, lizitatzaileak KAEB bat aurkeztuz gero, kontratuaren esleipen-proposamenak bere alde egingo balu, ordezten dituen egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu, 33.2 klausulan aurreikusitakoaren arabera.

2.- KAEB formulario normalizatua.

KAEB formulario normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektronikoan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

3- Jarraibideak:

Lizitazioaren epearen azkeneko egunean nolanahi ere **bete egin behar direla** adierazten diren **baldintzak**, kontratatzeko galarazpenak salbu; izan ere, horiek kontratua formalizatu arte jarraitu behar dute gutxienez, eta Administrazioak dagozkion egiaztapenak egin ahalko ditu, prozeduraren edozer unetan.

Adierazpena horretarako nahikoa ahalmen duenak **sinatu** behar du.

Kontratuaren xedea **zatika banatuko dela** aurreikusten denean, exijitzen diren fidagarritasun ekonomikoko eta finantzarioko edo teknikoko eta profesionaleko baldintzak zati batetik bestera aldatuko balira, fidagarritasun-baldintza bera ezartzen zaizkien zati edo zati-multzo bakoitzeko KAEB bat aurkeztuko da.

Exijitzen den baliabideen atxikipena lizitatzailearenak ez diren besteko baliabide batzuekin betetzen badira, lizitatzailearen KAEB bat eta kontratuaren betearazpenari atxikitako baliabideen beste KAEB bana aurkeztu beharko dira.

Hainbat enpresak **aldi baterako elkartea** eratuz aurkezten badira, elkarte hori osatzen dutenen arteko bakoitzak bere nortasuna, izaera eta fidagarritasuna egiaztatu beharko du, eta horietako bakoitzak KAEB normalizatutako formulario bat aurkeztu beharko du. KAEBaren normalizatutako formularioaz edo formularioez gain eta ABEE eratzeko konpromisoaz gain, edo behin-behineko bermea egiaztatzeko dokumentuaz gain, hala badagokio, LEHENENGO gutun-azalean lizitatzaileak enpresa-talde batekoak ote diren adierazi beharko da, agiri honen **V. Eranskinaren** ereduaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatutako Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **inskribatutako enpresek** ez dute obligaziorik izango dagoeneko era eguneratuan inskribatuta ageri diren datuak emateko, beti ere, egoera hori KAEB-en normalizatutako formularioaren adierazten denean. Nolanahi ere, lizitatzaileak ziurtatu behar du zer datu agertzen diren inskribatuta eta eguneratuta eta zer ez. Eskatutako daturen edo informazioren bat aipatu Lizitatzaileen Erregistroan agertzen ez bada, edo erregistro horietan eguneratuta agertzen ez bada, informazio hori formularioa betez eman beharko da.

KAEBen normalizatutako formularioaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek honako **dokumentu hauek kontsultatu ahalko dituzte**:

2016/7 (EB) Erregelamendua, honako webgunean erabilgarria dagoena:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

2016ko apirilaren 6ko Estatuko Administrazio Kontratazioaren Kontsulta Batzordearen Gomendioa, hemen eskuratu daitekeena:

http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

4.- Prozedura horretarako bereizitako formularioa duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.

III. ERANSKINA.-ABEE ERATZEKO KONPROMISO-EREDUAK

……jn./and., helbide hau duenak ……eta NAN zk. …… duenak, bere izenean edo ……honako enpresa honen ordezkari moduan (adierazi ordezkaritza-ahalmenak: administratzaile bakarra, ahalduna, etab.) ……, honako helbide hau duenak ……eta IFZ hau duenak zk…… ETA

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

Beren gain hartzen dutela Aldi Baterako Enpresa Elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa, % ..(e)ko eta %..(e)ko hurrenez hurreneko partaidetzekin, eta ..... jauna/andrea izendatzen dutela elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar ahalmen nahikoekin eskubideak egikaritzeko eta kontratutik eratortzen diren betebeharrak betetzeko kontratua azkendu arte

…….

Eta deklarazio honen adostasun-froga gisa, ……n 2020ko .....aren ..(e[a])n

Izp.: Izp.:

Enpresaren zigilua Enpresaren zigilua

IV. ERANSKINA.- ENPRESA-TALDEAREN INGURUKO ADIERAZPEN-EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK	
1. abizena, 2. abizena, Izena	**NAN/IFK**

	Norbere izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:	
Ordezkatuaren IFK:	

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK	
Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia-kodea**

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU

Ordezten duen enpresa:

	BAI dago Merkataritza Kodeko 42,1 artikuluko kasuetakoren batean
	EZ dago Merkataritza Kodeko 42,1 artikuluko kasuetakoren batean

Baiezkoa erantzunez gero:

	EZ da lehiatuko kontratuaren esleipenean Merkataritza Kodeko 42,1 artikuluan ezarritako kasu alternatiboren batean edo horien talde berean dauden eta banakako proposamenak aurkeztuko dituzten enpresekin.
	BAI lehiatuko da kontratazioaren esleipenean talde berekoak diren eta Merktaritza Kodearen 42.1 artikuluan ezartzen diren beste aukera batzuk lehiatzen diren eta banakako proposamenak dituzten enpresekin.

IFZ/IFK	Sozietatearen izena

(*)Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua::

“Sozietate-talde baten nagusi den sozietate orok urteko kontuak eta atal honetan aurreikusitako moduan finkatutako kudeaketa-txostena formulatu behar ditu”.

V. ERANSKINA.- KONFIDENTZIAL MODUAN AURKEZTUTAKO DATUEN ETA DOKUMENTUEN ADIERAZPEN OSAGARRIA

IDENTIFIKAZIO DATUAK	
1. abizena, 2. abizena, Izena	**NAN/IFK**
Norbere izenean	
Ordezkatzen dudan enpresaren izenean	
Ordezkatuaren izen soziala:	
Ordezkatuaren IFK:	

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK	
Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia-kodea**

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU

Eskaintzaren honako **dokumentu, informazio eta alderdi** hauek konfidentzialtzat hartzen ditu, sekretu tekniko eta komertzialekin duten loturagatik:

1.

2.

3.

Izaera konfidentzial horren arrazoiak honako hauek direla:

1.

2.

3.

VI .ERANSKINA.- HITZARMEN KOLEKTIBO EZARGARRIA

[1]…….jaunak/andreak, …… NAN zenbakidunak, bere izenean edo ..... (kontratistaren) ordezkaritzan, IFK: .....; kontratista den heinean.

DEKLARATZEN DU:

Kontratuaren xede den jarduera egingo duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa, esleipendun izanez gero, honako hau dela: ……..[2]

[1] **ABEE formalki eratzeko konpromisoarekin eskaintza aurkezten duten bi operadore ekonomiko edo gehiagoren kasuan, deklarazio hori, segun kasuak, behar bezala sinatuta aurkeztu beharko du operadore ekonomiko bakoitzak, edo haietako guztietako eta bakoitzeko ordezkarik sinatu beharko du.**

[2] Adierazi hitzarmen kolektiboaren izena.

VII. ERANSKINA.- MODELO DE PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN CUANTIFICABLES MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS

..... jaunak/andreak.....; helbidea ..... kalea),.....PK ..... eta NAN zk. hau duenak ....., Tel.: ..... nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, helbidea: ..... kalea: .....; PK ..... IFZ ..... eta Tel. ..... IRUNVIk honako hau kontratatzeko deitutako prozeduraren berri izanik .....

HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

I. Hori betearazteko konpromisoa hartzen dudala, guztira honako zifra hau duenak, BEZ barne .... EURO (*zenbakiekin eta hitzekin adierazi behar da*), honako zatikapenaren arabera

A- Zerbitzuengatiko prezio finkoa:

Zenbateko garbia..... €

BEZ (%)..... €

GUZTIRA..... €

B- Prezio unitarioa menu bakoitzeko:

Zenbateko garbia ..... €

BEZ (%)..... €

GUZTIRA.....

II. Era berean, Baldintza Teknikoak eta horien edukiak ezagutzen ditudala, nire adostasuna dutenak, baita Administrazio Klausula Partikularren Agiria eta kontratu hau eraendu behar duen gainerako dokumentazioa ere, berariaz onartzen eta erabat betetzen dudana.

III. Ordezkatzen dudan enpresak ireki, instalatu, eta lanean aritu ahal izateko indarrean den araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebehar guztiak betetzen dituela.

....., 20.eko .....aren ...(e)an.

Izp.:
NAN: